

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren udal zerga arautzen duen 7. ordenantzaren 2. eranskina aldatzeari

Udalbatzak, 2021eko irailaren 30eko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion 7. zerga ordenantzaren 2. eranskina aldatzeari, hain zuzen ere hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasa arautzen duena (2021/S062/9 espedientea), eta 2021eko urriaren 13ko ALHAOn (117. zk.) argitaratu zen. Erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, hala agintzen baitu Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan, eta jendaurrean jartzen da zerga ordenantzaren testu osoa, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak (Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateratua onesten duenak) 17.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen hitzez hitz:

7.2 ERANSKINA- HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILDU, GARRAIATU ETA DEUSEZTATZEKO ZERBITZUAREN TASA

1. artikulua. Izaera eta xedea

Tasa honen xedea etxeetan, lokaletan, saltokietan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinak bildu, garraiatu eta tratamendua emateko zerbitzua ematek dator. Bai eta eranskineko tarifyan sartzen den eta legez toki erakundeek kudeatu beharra duten bestelako hondakin mota ere, zerbitzua ematen den modua edozein dela.

2. artikulua. Ordaintzeko betebeharra

1. Orokorra eta nahitaezkoa da etxeetan, lokaletan, saltokietan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinak batu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzua, arriskutsuak ez diren hondakin komertzialak eta industrietan sortzen diren etxekoen antzeko hondakinak kudeatzea barne. Zerbitzu horretatik kanpo geratzen dira hondakin industrialak, etxeetakoak ez diren obretako hondakinak eta material kutsatuak, erradioaktiboak edo arriskutsuak“.

2. Ez dira udal zerbitzuek bildu eta kudeatu beharreko hondakintzat joko, tarifaturako eskubide eta tasak aplikatzearen ondorioetarako, hondakin arriskutsuak, erradioaktiboak, eraikuntzakoak eta eraisteetakoak etxeetako obretakoak ez badira, eta industria lanketen ondoriozko hondakinak. Horrelako zerbitzua egitekotan, udalak kasuan kasuko tasa ezarriko du, hondakinak biltzeko zerbitzuaren kudeaketaren ardura duen udaleko atal teknikoaren txostena aztertu ondoren.

3. 2. artikuluko 1. apartatuan definitutako zerbitzua ematean, ordaintzeko betebeharra zerbitzua emateak sorrarazten du; izan ere, orokorra eta nahitaezkoa izanik, Amurrioko udalerrian zerbitzua ematen den gunean edo kaleetan dauden etxebizitza, lokal eta establezimenduen titularrak edota erabiltzaileak hartaz baliatzen direla jotzen da. Kasu horietan, higiezinan inor bizi ez bada ere, berdin ordaindu beharko da tasa.

3. artikulua. Subjektu pasiboak

1. Subjektu pasiboak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren, Arabako zergei buruzkoaren, 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzua emateko eskatzen badute edo haren onuraz gozatzen badute edo hark eragiten badie.

2. Zergadunaren ordezeko subjektu pasiboa etxebizitza edo lokalaren jabea izango da. Jabeak, hala dagokionean, ordaindutako kuotak jasanarazi ahal izango dizkie etxebizitza edo lokala erabiltzen dutenei, hau da, zerbitzuaren onuradunei.

3. Zerbitzu horiek ematea borondatezkoa denez, haiek eskatzen dituzten pertsona edo erakunde eskatzaileak.

4. artikulua. Sortzapena eta kudeatzeko arauak

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, eta zerbitzua emateagatiko kuota, orokorra eta nahitaezkoa, murriztezina da.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

3. Borondatezko zerbitzuak emateagatiko kuotak baimena ematen den momentuan sortuko dira eta zerbitzua eman eta jarraian jasoko dira.

5. artikulua. Salbuespenak

1. Ez dute tasa hau ordaindu beharko Amurrioko Udalarenak eta Amurrion sartuta dauden administrazio batzarrenak diren higiezinak, erabilera dena delakoa izanik.

2. Ez dira zergapetuak izango Amurrioko Udalarenak eta Amurrion sartuta dauden administrazio batzarrenak diren ondasunak, errenta kontratuz edo lagapenez erabili edo ustiatzen badira.

3. Ez dira ordaintzetik salbuetsita egongo udalarenak edo Amurrion sartuta dauden administrazio batzarrenak diren higiezinak, etxebizitza edo merkataritza lokal modura badaude errentan.

6. artikulua. Tarifak eta aplikazio arauak

Zerga kuota kopuru finko bat izango da, higiezinaren izaeraren eta xedeararen arabera zehaztuko dena, etxebizitzarako edo jarduera baterako lokal, establezimendu edo higiezin bakoitzeko, ondoren zehazten diren epigrafeen eta, hala badagokio, zenbatekoen arabera:

1. epigrafea. Etxebizitzak horrela erabilia, etxebizitzetarako diren zerbitzu zentroak (auzokoen erkidegoak, ur bero sanitarioaren zerbitzu komunitarioa, ibilgailuak gordetzeko lokalak...), irabazteko xederik gabeko aisialdi, kultura edo erlijio jardueretarako lokalak (txokoak, gazteen lonjak, gurtza lekuak...) eta beheko solairuko lokalak eta lonjak, beste epigrafe batean jasota ez dauden jarduerak egiten badira bertan.

2. epigrafea. Ikastetxeak eta irakaskuntza zentroak, adibidez, jantzigintza, piano, dantza, eta hizkuntza akademiak, administrazio ikasketak, autoeskolak, eta abar.

3. epigrafea. Gai guztien –elikagaiak izan ezik- txikizkako dendak, esaterako: kirol dendak, tabako dendak, botikak, filateliak, lore dendak, jostailu dendak, etxetresna elektrikoen dendak, loteriak, artile dendak, liburu dendak, mihise dendak, optikak, paper margotuen eta margoen dendak, lurrin dendak, aterki dendak, drogeriak, erloju dendak, oinetako dendak, altzari dendak, jantzi dendak, informatikako, telefoniako eta komunikazioko produktuak eta abar. Ile apaindegiak, apaindegiak eta masaje zentroak. Okindegiak, eta esne dendak. Gimnasioak. Olgeta jolasen aretoak. Jendearentzako ez diren biltegiak. Saltokientzako zerbitzu zentroak (merkataritza galeriak, merkataritza elkarleen bulegoak, etab.).

4. epigrafea. Ostatuak eta apopilo etxeak. Ontziraturako edarien eta elikagaien txikizkako dendak, okindegiak eta esne dendak izan ezik, esaterako, harategiak, arrandegiak, fruta dendak, ultramarino dendak, izozki dendak, gozo dendak, eta abar. Aseguru etxeak, bidaia agentziak, bulegoak, aholkularitzak, higiezinaren agentziak, dekorazio estudioak, arkitektura estudioak, eta abar. Kontsulta medikoak, OLTak, psikologoak, logopedak, eta abar, nahiz eta etxebizitzetan kokatuta egon.

5. epigrafea. Hiri lurzoru industrialean kokatuta dauden kafetegiak, tabernak, dastalekuak... Saltokiak, ingeniariak, estudioak, zerbitzuen enpresak, komunikaziokoak eta abar. Industriak oro har, hala nola, aroztegiak, galdaragintza lantegiak, karrozeriak, txatartegiak, konponketa lantegiak, beirategiak, tapiztegiak, ibilgailuen konponketa, oinetako konponketak, tindategiak, gasolindegia, zerbitzuguneak...

6. epigrafea. Bankuak edo aurrezki kutxak. Zinemak, diskotekak, dantzalekuak, bingoak. Jatetxeak eta garagardotegiak. Bitxitegiak, notariotzak, larru dendak, klinikak, urre salerosketa.

7. epigrafea. Zerbitzu Bereziak. Bide publikoan utzitako hondakinak kentzeak eta orubeak eta lokalak garbitzeak ondoko tasak sortuko dituzte, hondakin motaren arabera:

- Zabor arrunta: 360 euro tonako.
- Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak: 180 euro tonako.
- Arriskutsuak ez diren beste hondakin batzuk: 270 euro tonako.
- Hondakin arriskutsuak: 1180 euro tonako.

2022ko tarifa

Epigrafea	Kuota eurotan
1	72,58
2	90,54
3	122,32
4	90,05
5	155,65
6	175,15

2023ko tarifa

Epigrafea	Kuota eurotan
1	74,03
2	92,35
3	124,76
4	91,85
5	158,77
6	178,66

2024ko tarifa

Epigrafea	Kuota eurotan
1	75,52
2	94,19
3	127,26
4	93,68
5	161,94
6	182,23

2025eko eta hurrengo urteetako tarifa

Epigrafea	Kuota eurotan
1	77,03
2	96,08
3	129,81
4	95,56
5	165,18
6	185,88

7. artikulua. Kudeaketa Arauak

- a) Arau haustek zerga ordenantza orokorrean ezarritako moduan zehatuko dira.
b) Zehapenak ezarrita ere, sortutako baina iraungi gabeko kuotak likidatu eta kobratu egingo dira.

8. artikulua

Ordenantza honetan xedatuta ez dagoenerako, zerga ordenantza orokorra aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango da indarrean hiriko hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuak ordaintzeko tasa arautzen duen 7.2 eranskina, eta halaxe egongo da harik eta aldatzea edo indargabea onesten den arte.

Amurrio, 2021eko azaroaren 26a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA